



HAUTSAK HARROTUZ

Tabakoaren lege berriak
Azpeitian ere sortu du
zeresana 20

MILAR LARRAMENDI

ESKAINTZA BEREZIA

20 URTE INGURU IRAUNGO DUEN

ARROPA GARBIGAILUA, HILEAN 69,90 €*

BAKARRIK ORDAINDUTA *12 hilabetez



Miele

ARROPA GARBIGAILUA
EROSTEAGATIK MILAR
KAMISETA TEKNIKOA ETA
FORRU POLARRA OPARI



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 125.a (2011ko otsaila)
Urtea. XIII.a (1999ko azaron sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. G. Otamendi
Web orrialdea.
www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzailak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritzako Gobernua



Uztarririk Bai Euskarari
Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2011KO OTSAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Editoriala.

Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua **15**

mamia

Iosu Segurola.

Distancia luzeko zaldi probetan lehiatzen du

04

Klik!

Sansebastianetako umeen karroza, pausoz pauso **16**

Etxeko kontua.

Joxe Labaka eta Aitor Otaegi, osaba eta iloba, abiadurak batuta **24**

jakiteko

Bestaldetik. Xebastian Lizaso oholtza gainean ez denean **34**


Ba al dakizu parrokiako harpeko estalaktitak bere garaian Aizarnatik ekarritakoak direla? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrrian




943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide gara dagoeneko Uztarrrian; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean. 106.400 euroko aurrekontua du Uztarrriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia (Uztarririk liburuxka gehiago aterako ditu)

IOSU SEGUROLA

zaldi probetan lehiatzen du

“Lasterketa batean 160 km egin ditzakete”

Arraza arabiarreko zaldiekin distantzia luzeko karreretan lehiatzen du. Helmugara fisikoki ondoen ailegatzen den zaldia saritzen dute. 📌📷 Ainitze Agirrezabala

Sei zaldi dotore ditu Loiolako baserrian, bi eme eta lau har. Duela zazpi bat urte, Oiartzungo aitona bati erosi zion Humo zaldiarekin hartzen du parte lehiaketetan. Zaldiak ematen duena, “beste inork” ez duela ematen dio. Ez ditu ez, saltzeko.

Txabolan dituzun zaldiak nondik ekarritakoak dira?

Beti gustatu izan zait hara eta hona zaldiak ikusten ibiltzea. Humo Salamancan jaio zela jakin nuenean, hango zalditegiarekin harremanetan jarri eta zer zeukaten ikusi nuen. Harrezkero, beste lau ekarri ditut. Laz, Tom Murzuk izeneko zaldi zuria ekarri nuen, eta lehiatzeko ari naiz prestatzen. Italiarra da izatez, eta sementala da; Humo irainduta dago. Beste

bat etxean jaio zen, eta haren ama Salamancako zalditegian dugu.

Noiztik duzu zaldiekiko zaldetasuna?

Txikitatik. Gure aitak mendian, late barrutian, haragitarako zaldiak eta pottokak edukitzen zituen. Mutil kozkorra nintzela, udaberrian zaldiak hartu, mendira joan eta behorrak zalditzen genituen Aitari beti esaten nion, lasterkeretako zaldi bat ekartzeko. Gerora, aitaren jaiotetxean behor bat eduki nuen, behiekin larrean, eta duela bost bat urte, Humo erosi nuen. Noski, zaldi batek dedikazio gehiago behar du. Ez da behor bat bezala, larrean bakean ibiltzen dena. Odol-beroko animaliak dira, eta txarrantzarekin eta kristoren aberiak egin ditza-

|||DATUAK|||||

|||Jaio. 1972-11-12. |||Herria.

Azkoitia. Bost urterekin Azpeitira bizitzera etorri zen, eta azpeitiarra dela dio. |||Bizi tokia. Azkoitia. |||Lanbidea. Leihoak muntatzen ditu.



kete. Hala, baserri ondoan txabola eta itxitura egin nituen. Gehien gustatzen zaidan animalia da. Zaldiak ematen dizuna ez dizu beste animalia batek ematen.

Lehiatu asmotan erosi al zenuen zure lehen zaldia?

Humo zaldia erosi nion Oiartzungo aitona hala esan zidan: “Iosu, ez ezazu presarik eduki trostan ibiltzeko, ez lauhazka ibiltzeko, ez ezertarako. Kontuan izan, ordu eta paisaia asko elkarbanatuko dituzuela. Eta, Jainkoak nahi badu hogen urte baino gehiagorako lagun bat duzula”. Halere, neurekiko nioen, ‘biharko egunean lehiatzea pentsatzen badut, ez naiz hasiko saltoan edo hipodromoan’, eta horregatik erosi nuen arraza arabiarreko zaldia. Hipo-



Lekunberriko lasterketan, Segurola Humo zaldiarekin korrika. ||| Iosu Segurola

dromoetan lehiatzen dutenak 40 kiloko gizonak dira. Kirola egitea betidanik gustatu izan zait, eta zaldiaren gainean ez ezik, berekin korrika ere joan naiteke.

Noiz erabaki zenuen, lehiatzen hastea?

Duela pare bat urte hasi nintzen, zaldiak bost urte bete arte ezin baitu lehiatu. Bitartean, Humorekin egunero ibiltzen nintzen mendian, eta batera eta bestera ere asko mugitzen nintzen, karrerak ikusiz pixka bat ikaste aldera. Lehiatzen hasi nahi nuenez, zaldiak bost urte betetzera lrungo Jaizubia hipikan titulazioa lortu, eta zaldia garraiatzeko gurdia erosi nuen. Horiek denak egiterako, Humo fisikoki oso ondo zegoen, lehiatzen hasteko adin egokian. Hala, Tolosan aurrenekoz hasiberrientzako lasterketa bat antolatu zutela jakin nuen, eta aurrena egin genuen. Gero, karrera

desberdinetan parte hartu dut: Ataunen, Zerainen... Poliki-poliki distantzia luzeagoko karrerak korritzen hasi nintzen.

Zer ezaugarri dituzte?

Arabiar arrazakoak dira, eta horien ezaugarri komuna erresistentzia da. Desertuko zaldiak dira, ur gutxi edanez distantzia luzeak egin izan dituzte, eta iraupen-probetan parte hartzeko aproposak dira. Animalia ikusgarria da. Nik argi nuen zaldi bat erosten banuen arabiar arrazakoa izango zela. Arraza ingelesekoak, adibidez, hipodromoko zaldiak dira, distantzia motzekoak; 1.000-2.000 metro egiten dituzte. Arabiar arrazakoek karrera batean 160 kilometro egin ditzakete.

Geratu ere egin gabe?

Ez, karreretan asistentziak egiten ditugu. Lasterketa bezperan nire bi lagunek –Ander Kerejeta *Atxumarrik* eta Ander Aierbek– ibilbi-

dearen mapa hartzen dute, ko-txez nondik-nora ibili behar duten jakiteko. Esaterako, aurreneko asistentzia 22. kilometroan bada-go, zaldiz hara iristerako, beraiek zain egoten dira kuboekin eta, animaliarri ura edaten emateko, edo deshidratatu ez ditezen elektrolitoak sartzen dizkiegu.

Asistentziarik gabeko lasterketarik egiten al da?

“Zaldiak ematen duena ez du beste animalia batek ematen”

“Zaldiaren eta zaldunaren optimizazioa lortzea da xedea”

Entzun dudanez Katalunian laguntzarik gabeko lasterketak egiteko asmotan dira. Izatez, karrera hauen filosofia da hasi eta bukatu arte, zaldunak eta zaldiak inolako laguntzarik gabe egitea lasterketa: erreketan edaten duten urarekin, edo bidean bilatutako belarra janda. Baina, asistentzietako laguntza horiekin animaliak porru eginda bukatzen badute, ez dut pentsatu ere egin nahi laguntzarik gabe nola bukatuko luketen.

Nolakoak dira probak?

Zaldiaren eta zaldunaren optimizazioa lortzea da karreraren helburua. Helmugara aurrena ailegatzeko dena saritzeaz gain, fisikoki ondoen ailegatzeko den zaldia ere saritzen dute. Horretarako, bi helmuga bezala daude, eta aurreneko marra pasata, bigarrenean sartzerako zaldiak errekupeztzeko denbora tarte bat du; beraz, errekupeztzeko denbora gutxiena

behar duen zaldiari 'best condition' saria ematen zaio. Bigarren marran sartzean zaldiak txeko bat pasatu behar du. Albaitariak zaldia auskultatu eta ikusten badu errena duela hankan, edo gelditze metabolikoa duela, edo deshidratatuta dagoela... kanporatu eta etxera bidaltzen zaituzte.

Halakorik pasatu al zaizue?

Frantzia, Tarbesen, 80 kilometroko nire lehen internazionalen. Zaldiak beraien artean pikatu egiten dira. Dena ematera irteten dute, eta ez badiozu eusten... Beste bi neskekin pikatuta gindoazen, eta aho-uhala askatu eta jotzen utzi nion. Nesketako bat atzean geratu zen, eta beste frantziarrarekin lehian gindoazen. Zaldia oso ondo zihoan; helmugara ailegatu eta minutu batean erreperatu zuen. *Best condition*-a irabazita nuen, baina aztertzerakoan errena markatu zuen, eta kanporatu egin gintuzten.

Zer da zaldunaren egitekoa?

Sekretua da kontrolatzea zaldiak benetan zenbateraino eman dezaken: noiz frenatu edo noiz saka behar zaion. Bere posibilitateen gainetik eramaten baduzu... gehiegi behartu eta deskalifikatzeo arriskua dago.

Errekuperatzeo zer egiten duzue zaldiarekin?

Aurreneko marran sartu orduko zaldiari traste guztiak kendu eta ura botatzen diogu, pultsazioak jaisteko. Zaldia lehenengo helmugan igoal sartzen da minutuko 125 pultsaziorekin, eta bigarren marran sartzerako igoal jaitsi behar du 56 pultsaziotara. Humo minutu batean edo bitan erraz errekuperatzen da.

Kirol honetan ba al dago tranparik?

Tope. Beste edozein kiroletan baino gehiago. Antidoping kontrolak asko kostatzen dira, eta ez dago dirurik egiteko. Nik badakit injektatzen dituztela, neure begiekin ikusi dudalako. Irabazten duenarentzat milioi erdiko saria dagoen momentutik, jendeari animalia ez zaio batere inporta. Tour batean txirridulariek transfusioak egiten badituzte, egin kontu kirol honetan animaliekin zer egiten duten. Jendeak nahi duena da lasterketa irabazi eta prestigioa lortzea. Eta, hori animaliak hiltzea da. Lau animalia dituen batek ezin du konpetitu 150 dituen batekin. Horiek gaur zaldi bat dute korritzeko, bihar bestea, eta etzi beste bat. Eta, gainera, entrenatu, domatu, lan-zikina esatea dagoena, beste batzuek egiten diote. Azpiak atera, entrenatu, karrera egunetan txofer egin... dena neuk egin behar izaten dut.

Zaletasun garestia al da?

Zaldi bat edukitzea, berez, ez da garestia. Jendeak hor deskuidu handia du. Lehiatzea bai: lizentziak atera, karroa eta kristoak erosi... Egia da zaldiak asko jaten duela, eguneko 24 orduatik igoal pasako dituzte 20 jaten. Behiek bezala ez dute hausnarrean egiten, jan ahala egiten dute kaka. Baserrian ontzen dugu guk belarra, eta, beraz, ez da kapritxo garestia. Garestiena perrak jartzea da. Bi hilero aldatu behar zaizkie, eta 65 euro kostatzen dira. Jendeak gimnasioa hilean zenbat pagatzen du? Edo, ingelesa ikasteagatik? Edo juergan? Azkenean da bakoitzak garrantzia eta lehen tasuna zerri ematen dion.

Zenbat balio dezake zaldi batek?

Hori dena oso erlatiboa da.



Lasterketako asistentzia puntu batean zaldia perratzen. |||Iosu Segurola

Mundu horretan sartzen zarenean, tratuan ikasten duzu. Hasieran, engainatu egiten zaituzte. Igoal, ezer ere balio ez duen animalia kristoren dirutzagatik sartu nahi dizute. Tom Murzuk, esaterako, nik txahal baten truke ekarri nuen. Eta, orain saltzera joan eta zer balore? Ba, ez dakit... karretan eta demostratzen duenaren arabera. Humok orain diru asko balio du, bost milioitik gora; hortik behera dagoela etxean.

Nola moldatzen zara zaldiak zaintzeko?

Goizero, seietan jaiki eta lanera joaterako etortzen naiz jana eman eta azpiak ateratzera. Lanetik

atera eta bazkaldu aurretik, berriz egiten diet bisita. Etxera joan, bazkaldu, eta arratsaldean lanetik irtetean berriz joaten naiz. Dedikazio handia da, baina gustuko lekuan... Ni hauekin gozatzen naiz, lasai ederrean pare bat orduko mendi buelta emanez.

Zer asmo dituzu aurten?

Gasteiz edo Nafarroako 120 kilometroko lasterketa bat bukatzea gustatuko litzaidake, nahiz eta azkena geratu. Behin hori lortuta, kanpora irten, eta 200 kilometroko internazional batean ahalik eta posturik onena lortzea dut helburua, Madrilen, Bartzelonan edo Frantzia.✱

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943.15 16 40

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

IRENE ALTUNA
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.iaitunadenda.com

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

urrategideko

altzariak & sukaldeak



círculo
muebles



- Sukaldeak
- Sofak
- Hurren logelak
- Armairuak
- Egongelak
- Koltxoiak
- Logelak
- Bainuak

1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.urrategimuebles.eu



Aldaketaren indarra

U

rtea martxan dugu berriro eta gertakizun abiada handia izaten ari da. Gertaera ugari eta oso garrantzitsuak, gure gizartearen eta inguruan ditugunen oinarriak kolokan jar ditzaketenak. Tunez-en eman den matxinadari buruz ari naiz. Afrikako iparraldeko herrialde gertatutakoa ez da hala ere salbuespen bat, eta dirudi Egipto izan daitekeela arabiar munduaren askatasun ezaren eta txirotasunaren ondorioak jasan ditzakeen hurrengo herrialdea. Gainera, urteko hilik hotzerna izateko fama duen honetan bere garaian oihartzun handia izan zuen gertaera baten 25. urteurrena betetzen da.

1986ko otsailean Filipinetan bi hamarkada pasa zeramatzan Ferdinand Marcos diktadorearen erregimena hilabete eskas batean erori zen. Hark ere erregimen politiko errotua zirudien, baina garbi dago jendearen gogoen eta nahien aurka ez dagoela denboran iraungo duen ezer. Txirotasunak eta etorkizun ezak kontzientzia asko mugitzen ditu eta jendearen aldaketarako grina pizten du.

Oso desberdinak diruditen gertakizunek oinarri bera dute, beraz: aldaketarako gogoak. Hori da gertaera horiez egin beharreko lehen irakurketa. Aldaketa gogoak geldiezina da errotua badago. Bigarren, Tunezeko erregimenaren hondarrezko oinarriek erakusten dute sendoak diruditen erregimenek beren gehiegikerien ondorioak jasaten dituztela.

Bi ondorio edo irakurketa hauek erabilgarriak dira gure artean? Logikoki inork ez du hango gertaeren dramatikotasunik eta bat-batekotasunik imajinatzen, baina egia da gure artean ere aldaketa gogoak nabaria zen azken aldian. Baina zer aldaketa mota?

Iritzi asko egongo dira honen inguruan, gure herri honetan dauden pentsamolde desberdinen isla bakoitza ere, baina egia da normalkuntza politikoa, herritar guztiak gure artean izatea eta biolentzia mota guztien desagerpena gure herriaren aspaldiko desioak zirela. Gure herriak bizi zuen egoerak hiru



|||||||markel mendizabal|||||||

|||Oso desberdinak diruditen gertakizunek oinarri bera dute, beraz: aldaketarako gogoak


elementu horietan oinarritutako aldaketa abian jartzeko aukera du. Gai izango gara aukera aprobetxatzeko?

Azken bultzada

Gure herri honek aldaketa egin dezakeela ukalezina deritzot eta denok ados gauden elementuak hor daudenez, zergatik ez amestu denbora gutxian gure herriko egoera politiko eta sozial oso desberdin batekin. Ametsak amets, errealitatea nagusitzen da askotan, baina elkartuak bagaude ziur azkeneko hilabete hauetako gertakizunek ondorio onak izan ditzaketela denontzat.

Azken bultzada falta da eta hori herriaren benetako aldaketarako gogoak baldintzatuko du. Politikoei bere eginkizuna ukatu gabe herritarren aldaketa nahia eta bere indarra izan daitezke egoera aldatzen lagundu dezaketen elementuak.

Ea posible den gure herriko egoera politikoa berria herritarren nahiaren eta aldaketa gogoaren isla izatea eta ez politikoen erabakien gauzatze hutsa. Herritarrek beraz zer esan nahi handia dute eta rol aktiboa badute, denontzat hobeto. Ea horrela den!!*



Xanti.R

EGIN klik!
EGIN AUKERA

egin
ikastola!



0-18 urte
arteko
hezkuntza
eskaintza



ikastolenelkartea

AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI

loiolako inazio hiribidea 26 • 20730 azpeitia • tel. 943 15 12 46 • faxa 943 15 17 76
ikasberri@ikastola.net • www.azpeitikoikastola.com

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



GORA. Idatzi oharrak eta hitzorduak euskaraz.

Herriko hainbat saltokitan salgai daude bilgune feministako agendak, eta horren berri euskaraz eman dute. [Uztarrria](#)



BEHERA. Goizeko ordu txikietan ere euskaraz.

Kalean halako kartelak ikusteak begiko mina ez ezik, kaskarreko mina ere eragiten du. Egin dezagun ahalegina kartelak euskaraz argitaratzeko. [Uztarrria*](#)



Xanti Rodriguez.

ESANA DAGO

“Lan bolumena areagotzen baldin badoo, argazki agentzia txiki bat sortu nahiko nuke”

“Dendan lanean hastean ikusi nuen argazkilaritza zer zen”

XANTI RODRIGEZ
[Argazkilaria](#)

“Erraz konektatu dut bertako jendearekin, odolean asko baitut urrestildarretik”

“Pertsoneri laguntzen saitzen gara; ikusten ez den lana da, baina garrantzitsua”

J. M. ETXEBERRIA
Urrestillako parroko ohia



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Bidea

Ondo ez, dena oso ondo egiten saiatu behar dugula esaten digute. Perfekzioa dugu beti helburu; onak ez, ahal bada, onenak izan behar dugu. Eta, eskatzen digutena lortzea ia ezinezkoa dela konturatzeak depresioaren amildegian behera botatzen gaitu.

Adinak, urteez gain, zerbait irakasten dizu. Esate baterako, jakiteko, dakitenei entzun eta kaso egin behar zaiela; baina, ez sasi-jakintsuei. Dakitenek diote helburuak ez duela jomuga izan behar, helburua lortzeko bidea baizik. Alegia, ez dugula perfekzioaren bila itsu-itsuan joan behar, gauzak ondo eginez,

aleka-aleka, bidean aurrera egin behar dugula.

Medikuetan eta sendagaietan gutxi gastatuta, luzaro, osasuntsu bizi nahi nuke. 100 urte nola harrapatu burua nekatu beharrean egunez-egun, egunari ahalik eta zukurik handiena atereaz bizitzea gomendatu didate. Umorea, irribarra eta baikortasuna bide-lagun izanda, bizitza, eguneroko jardun gisa, eramangarri ezezik gozagarri ere izan liteke.

Eta, medikuetan gutxi gastatu nahi dudanez, nire eta nire inguruko mediku diren Garcia, Bernaraz eta Orbeari nire eskerrak



txetxu urbieta

euren begirune eta profesionaltasunagaitik. Beraien kontsultara joatea ez dut gustuko, baina beraien kontsultatik beti gustura ateratzen naiz. Profesionalekin, dakitenekin, tarteka huts egin arren, aritzea beti da eskertzekoa.

'Pentsatzen dut, beraz, bizi naiz', zioen Deskartesek. 'Asko pentsatuta asko bizitzea zaila da', dio Urbietak. Beraz gutxiago pentsatu eta bizi, eta bizitzeko egin. Ausnartzeko, behiak eta belarra. Bebe. Penak itotzeko. Amildegi ertzera iritsita, hor behera erori aurretik, akabo zutabea.*

IKUSTEKOA!



▲ 'ONDO IBILI' ALA 'EA BAZTERRA JOTZEN DUZUN'?

Soreasuko lur azpiko aparkalekuan autoa aparkatuta eduki duzuenoi ezaguna egingo zaizue irteeran 'bidaia ona' opaz agertzen den barre maltzurereko panpina. Pantailan 'ondo ibili' jartzen badu ere, panpinaren aurpegia ikusi besterik ez dago, benetan zer opa digun deszifratzeko: 'ea aurreneko kurban bazterra jotzen duzun'. 📞 Ainitze Agirrezabala*

URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



maite garmendia



Zorionak jaioberriari!

TXAPEL 40, ERNIARRAITZ 10, SANAGUSTIN 0. Ez da saridunen rankinga, saririk mereziko luketen arren. Eskarmentuaren rankinga, agian. Txapelen omenez 40 saio egin dira herrian; Erniarraitz bertso eskolak hamar urte bete ditu. Alajaina! Baina, Sanagustin berriztatua jaioberria dugu kultura mundura. Eliza bezala bete dituen adina urte beteko al ditu kulturagune bezala! Zorionak jaioberriari!



Sexismoari tururu!

LURRIN MUNDUARI KIRATSA DARIO. Aniztasunaren onurez dihardute bazterrik baztar, baina zer aniztasun azaltzen digute Gabonetako lurrin iragarkietan azaltzen diren emakume eta gizonezko ereduak: non da aniztasuna? non dira gizon eta emakume "normalak"?



Gabonak, kontsumo onak

KONTSUMISMOAREN ATZAMARRETAN. Aspaldi-aspaldiko garaietan, naturaren zikloak zekarren solstizio aldaketa ospatzen omen zuten, natural-natural. Ohitura zahar hari, ordea, denborarekin kristautasuna gailendu zitzaion, eta harrezkero "Jaioberriaren" ospaki-

zunarekin jai-erlijioso bilakatu da. Gaur egun, hori guztia superatu edo gainditu dugulakoan nago, eta guztiok kontsumismoan buru-belarri sartu gaituzte, itsu-itsuan. Hori eta gero, zein izango ote da hurrengo fasea?*

INKESTA

NOIZ izan zinen azkeneko aldiz medikuarenean?

 Ainitze Agirrezabala

GLORIA ODRIOZOLA

jubilatua



“Aspaldian ez naiz joan. Ez dakit osasun onagatik den, edo

medikuarengana joan gabe pasatu nahi dudalako den. Negua nahikoa ondo ari naiz pasatzen. Osasuntsu egoteko onena bizitza normala egitea, eta iloba txikiekin gozatzea”.

PEDRO LUENGO

langilea



“Azken aldian nahi baino gehiago joan beharra eduki dut. Gripea

pasatu berri dut, eta dermatitis arazo batengatik ere medikuarengana joan beharra izan dut”.

MAITE GARATE

baserritarra



“Belauneko minez nabil, eta erresonantzia egin berri dut.

Bihar noa medikuarengana, emaitzen bila. Baina, nik ambulatorioan lata gutxi ematen dut. Derrigorrean joaten naiz”.

OIER NUÑEZ

ikaslea



“Ez dut gogoan azkeneko medikuarenean noiz izan nintzen.

Aspaldi izango zen, hanka bihurritu nuenean. Negu honetan, hotz egin arren, ez naiz gaixotu”.

Talde berria danborradan

Aurtengo danborradan lau talde berri izango zirela ziotenak oker zeuden, bosgarren “talde sorpresa” bat agertu baitzen San Sebastian bezperan. Plazara beste taldeak baino lehenago agertu zen, arratsalde. Jantzi berriak eta aurpegia estalita, inork ez zekien zein soziedadetakoak ziren. Jantziak gerra zibileko Eusko Gudarostean erretaguardiarenak zirela azaldu zigun txori batek. Nik behintzat, ez nien tropa antifrankisten itxurarik hartu.

Benetan portaera xelebrea, talde berri honena. Ez zeramaten danborrik eta atabala, berriz, bakarra, handiegia aukeran. Hauen ordez gomazko pilotaz betetako zakuak eta hauek botatzeko eskopeta moduko batzuk zituzten soinean.

Arratsaldeko zazpiak aldera urtero bezala pankartak eskegitzen hasi ziren eragile desberdinak. Besteak beste, neska batzuk emakumei danborradan parte hartzeko deia egiten zien pankarta jartzeari ekin zioten, baina “talde sorpresako” kideek ez

zieten utzi. Geroxeago, Corrugadoseko langileak hasi ziren pankarta eskegitzen beste aldean. Hauetaz ere ez, ezta inori ere! Aginduak betetzen omen zituzten, nahiz eta taldearen zuzendaria ez zen inon ageri. Baina, noren aginduak?

Denbora aurrera, talde berriko kideak ez ziren plazatik mugitu, tokia hartzeko edo. Guztien harri-durarako, ordea, danborzaleak gerturatzean bazter batean gelditu ziren. Dirudienez, gomazko pilotek ez zuten Sarriegiren doinuekin afinatzea lortzen.

Talde hau Donostian eta beste hainbat herritan ere ikusitakoa zela esan zidan lagun batek. Ez, ordea, Sansebastianetan, larunbat arruntetan baizik. Ganberro batzuk zirela kontatu zidan, beti gazte nahiz zaharrak egurtzen eta festa giroa zapuzten. Herri guztietan nazka-nazka eginda omen daude, ez omen du inongo herrik “talde sorpresa” bere herrira etortzerik nahi. Horrela ibiltzeko, hobe datorren urtean euren “soziedadean” gelditzen badira.*



yuri agirre

galdetzen hasita, noiz ezaqutuko dituzte azpeitiarrek hauteskundeetako hautagai guztiak?  **Uztarria**

Aurtengo gripea

Duela urtebete, aztoraturik genbiltzan, hilabeteak generamatzen aztoraturik, gripea gora eta gripea behera. Baina, iazko gripea ez zen edozein gripe. Gripe A zen, ene bada! Eskerrak Osasunaren Mundu Erakundea argi eta garaiz ibili zenari, pandemia deklaratu zuenari, adi eta erne jarri gintuenari. Eta, eskerrak Eusko Jaurlaritzak, beti puntan, gripeari aurrea hartzeko txertoz eta –ez kalean eta ez etxean inoren arnasarekin ez kutsatzeko– maskaraz ondo baino hobeto hornitu gintuenari, zer gerta ere.

Ez zen ezer gertatu. Ez ote? Zenbait Farmazia Industriaren iazko balantzeari erreparatu beharko genioke. Bai horixe gertatu zela! Gure poltsikoak pixka bat hustu egin ziren, eta haienak asko bete.

Oraindik orain esan digute iaz baino gehiago zabaldu dela aurten gripe A ikaragarria, eta Euskal Herrian inon baino gehiago, eta guk ezer jakin ez oraintxe arte, pasatu eta gero. Orduan zer? Iaz adarra jo ote ziguten edo aurten jo digute adarra?

Segur aski bietan jo digute adarra: iaz gripe Arekin, eta aurten auskalo zerekin, hori gero jakiten da beti. Farmazia Industriek –eta beste hainbat Industriak– bazekiten iazko gezurraekin aurten ez zutela negoziarik, baina egon ziur aurten ere, beste gezurren batekin, gure lepotik gizentzen ari direla. Saltzea da kontua.

Eta guk ere badugu geure errua, geure inozan edozer gauza sinesten diegulako. Eta hor gabiltza sendagilerik sendagile edo sendalaririk sendalari, farmaziarik farmazia edo belar-dendarik belar-denda, beti sano egon behar bagenu bezala eta inoiz hil behar ez bagenu bezala. Sendagile eta sendalari, farmazia eta belar-denda, ez ahal didate gaizki hartuko! Adibidetxo bat besterik ez da. Gripe A bera ere adibidetxo bat besterik ez da, esateko zein sineskorra garen, edo zein beldurtiak. Eta zein erraz engainatzen gaituzten gure bizkar aberasten direnek.*



joxe arregi



andoni salegi



Erretzea kanpoa erden
berkozea ba...

benetan ai altzea?

nik ohoien beñe ez tet
gezurrik esaten.



▲ AZKENEAN, KALEAN.

Aurten, Iraurgi ikastetxeko ikasleei egokitu zaie karrozan irtetea: Mikel Gurrutxagak Julian Barrenetxea irudikatu zuen; eta Vicente Zambrano, Nerea Oiarzabal, Enaitz Sagarna eta Saioa Sagarna abesbatzako kideez jantzi ziren.

Ezikutuko lana

Herritar asko Sansebastianetako umeen karroza ikusteko zain izaten da. Baina ikusten denaren atzean zer-nolako lana dagoen ba al dakizu? 📌👁️ Ainitze Agirrezabala



▲ **ORDU ASKOKO LANA.**

Julian Barrenetxearen heriotzaren 50. urteurrena eta izen bereko abesbatzaren sorreraren 25. urteurrena izan dira aurtengo umeen danborradako karrozako gaiak. Ordu asko sartu dituzte Eider Joaristik eta haren lan taldeak lanean, Garmendigain areako Marpe manufacturataillerrean. Argazkian, Eider Joaristi eta Iñigo Ezquerria organoaren teklak jartzen.

► **HODIAK.**

Hasi eta bukatu, hilabete eta erdian egin dute karroza. Erlojuaren kontra buru-belarri aritu dira, lanean. Argazkian, Marpe enpresako nagusi Teo Santillan eta Joaristi organoaren hodiak bakoitza bere lekuan jartzen. Karrozaren egitura egurrezkoa zen, eta organoaren hodiak benetakoak.





▲ TINTONTZIA LIXATZEN.

Julian Barrenetxea organo-jotzailea ez ezik, konpositorea ere izan zen; eta, beraz, karrozan ezin zuen falta tintontziak eta lumak. Argazkian, Ezquerria egurra lixatzen.

▶ KARROZA KALERA JAITSI BEHAR.

Goenara bidean dagoen Garmendigain arean egin dute karroza eta handik kalera jaisterakoan karroza puskatuko zen beldurra zuen egileak. Sansebastian bezperan jaitsi zuten karroza Udaleko langileek inongo zailtasunik gabe, eta zezen-plazako biltegian gorde zuten.



▼ JANZTEN.

Apaizaren eta abesbatzako kideen arropak Madrazo etxeko Mirenek josi zituen, neurrira. Ile-apaindegian bertan jantzi ziren. Argazkian, Joaristi Saioa Sagarna jantzen.



▲ IRTEERA, ZEZEN-PLAZATIK.

Ile-apaindegian dotore jarri eta jantzi ondoren, 12:00etarako zezen-plaza aurrera joan ziren, handik irten baitzen karroza.





▲ **FROGAK EGITEN.**

Garai ile-apaindegiko Maider Kortak orraztu eta makillatu zituen karrozan irten behar zuten neska-mutilak. Sansebastianak baino astebete lehenago, ile-apaindegian frogak egin zituzten. Argazkian, Korta Mikel Gurrutxaga makillatzen.



▲ **APAIN.**

Goizean 09:00etarako hasi zen Korta neska-mutilak orrazten. Lanak bukatzean, argazkia atera zuten ile-apaindegian.

Agur, tabakoaren keari

Urte berriarekin batera etorri zen erretzearen debekua. Batzuen plazerra bukatu da tabernetan, beste batzuenari tokia eginez. 📝👉 Ainitze Agirrezabala

Kafe beroarekin batera erretako zigarroa plazerra bazen lehen, taberna atariko freskuran presaka erretakoa batera gozatu gabeko zigarroa da orain. Farmazietan arrakasta handiz ari dira saltzen zigarro elektronikoak; Allen Car idazlearen *Es fácil dejar de fumar, si sabes cómo* agortu egin da liburu dendetan; jendeak lagunartean egoteko leku berriak bilatu ditu... Tabakoaren Kontrako Legea indarrean sartzeak nola eragin die batzuei eta besteiei?

Legeak muturrean bete-betea jo dituenak, batez ere, herriko tabernak eta jatetxeak dira. Orain arte, Landetako Mendizabal erretiratu askoren eguneroko hitzordua izan da; arratsaldeko 15:00ak aldera hasi eta 19:30ak bitartean jokuan egin asmotan taberna bete izaten zen han. Jatetxeko nagusi Martin Mendizabalen esanetan, "galera handia ekarri du debekuak. Astegunean ez ezik, larunbatetan jende asko eta asko etortzen zen hona jokura, kafea eta purua hartuz 20 euro barrena gastatzera. Mostradorean kontsumitzen zuen jende horrek etortzeari utzi dio. Jendea soziedadeetara hasi da joaten,

taberna
batean 8 kg kafe
gutxiago saldu
zuten urtarriLeko
Lehen astean. KILOTIK
100 kafe ateratzen
dira

han libre baitute erretzea". Barran diru gutxiago egiteaz gain, afaltzera datozenengan ere legeak eragin zuzena izan duela adierazi du: "Lehenago, afalondoan puru txiki bat edo zigarroa errez trago bat jotzen zuen jendeak, baina orain jan beharrekoa jan, eta martxa egiten dute. Legea horrela inposatu beharrean, ke-erazgailuak dituzten tabernei erabakitzeke aukera eman beharko litzaieke". Bezeroen beharrak asetu nahi, eta lau taburetekin mahai bat jarri dute sarrerako bi ateran

artean, erre nahi duenak babesean egin dezan.

Urrestillara bidean dagoen Larrañaga hotelekoak ere ez daude "batere gustura". Jatetxeko alaba Olatz Galarragak dioenez, "legea guretzako ez da bentaja. Lehengoan 70 urteko gizonezko batek esaten zidan bazkalondoan puru bat erretzeko ohitura duela, eta hura ez dela kanpora aterako erretzera, hotza pasatzera". Orain artean, ez dute arazorik eduki bezeroekin: "guk esan beharrik ez dute eduki erretzera kanpora irteteko; baina otordu ondorena asko mozten du. Lehen, jendeak afaldu eta zigarro bat edo puru bat errez kopa edo konbinatu bat hartzen bazuen, orain menua ordaindu eta ospa egiten dute. Guretzako galera handia da. Lehen lan gutxi badugu, orain debeku honekin... pentsatu! Oso penagarria da".

Bada beste kontu bat, Galarragari "amorratio handia" eragiten diona: "Jakin badakigu, hainbat tabernetan 'erre lasai!' esaten dutela; eta, orain, jende guztia haietara hasi da joaten. Eta, esaten duzu, 'gu zertan ari gara? Ez gaude ados lege berri honekin".



Landetako Mendizabal erretegian gizon koadrila bat musean, kerik gabe.

“Laguntasun handiena behar dugun garaian matxakatzan gaituzte gehiena”, dio Etxe-Zuri eta Jim Clark tabernetako nagusi Iñaki Areizagak. “Jendeak legea nola betetzen duen ikusteak harritu egin nau. Nik garbi nuen harik eta abisuren bat, isunen bat, edo aurreko esperientzia kontutan hartuta legea benetan betetzen zen ikusi arte Etxe-Zurin erretzen utziko nuela. Baina, herrian erretzea debekatzen duten tabernarik egongo ez baltz bezala, baten batek, Etxe-Zurin jendea ez ezik, zerbitzaria ere erretzen ari zela esanaz udaltzainetara deitu zuen, eta hala Aristi udaltzainburuak deitu zidan, erretze kontu horrekin moztu beharko nuela esanaz”.

Debekuaren aurrean, jendea ez dagoela “konforme” eta “soluzio bezala soziedade eta lokaletan biltzen” hasi dela kontatu du: “Etxe-Zuriko mutil koadrila batek, esaterako, nik biltegi bezala erabiltzen nuen lokala hartu behar izan du, kanpoan hotzak hartzen erretzen ez egoteko. Etxepekoei ez zaie gustatu hori, baina denontzako askoz hobe da horrela. Kanpoan erretzeak zigarrokin kalean botatzea eta zarata sortzea baitakar”.

Indarrean sartu berri den legea ez zaio neurri egokia iruditzen Iñakiri: “Oraingo honetan pasatu egin dira. Egunero egunkaria irakurriz, eta puru txiki bat errez gosaltzera etortzen den gizonezko batek sartu orduko erretzerik bazegoen galdetu zidan lehen egunean. Lasai erretzeko erantzun nion. Hura bestela bazihoan. Jendeak baldin badaki ezin dela erre, horrek moztu egiten du”.

Gosaritan eta bazkalondo-arratsaldeko kafe garaian “mugimendu gutxiago” dagoela dio: “Etxe-Zurin eta Jim Clarken nabarmen jaitsi da, %20-30. Indarrean jarri duten legeak galera handia ekarriko digu tabernarioi”.

‘Giro garbiagoa’

Legea begi onez ikusten duen tabernaririk ere bada herrian. Ametsa tabernako nagusietako bat da Joseba Gorrotxategi, eta haren esanetan erretzea debekatu zenetik “tabernako giroa askoz ere garbiagoa da. Niri oso ondo iruditzen zait legea, xapo. Pintxoek ere beste usain bat dute orain”. Legea indarrean sartu denetik bezerorik galdu duten galdetuta, “zeozer” antzematen dela,

baina beraiek baino gehiago “beste taberna batzuetan antzemango” dutela adierazi du: “Espero genuen zer etorriko zitzaigun, eta terraza erretzailleentzat egokitzeke lanean aurretik ere pixka bat hasita geunden. Kanpoan goxo egoteko bombona bidezko berogailuak eta euritik eta haizetik babesteko alboetan jartzen diren parapetoak ditugu, eta baita telebista ere, futbol partidak ikusi ahal izateko. Hemen guztiekin pentsatu beharra dago”.

Estankoak ere galeran

Legea indarrean sartu eta hamar egunera hitz egin du Uztarriak Luis Igarzarekin, Estanko Txikiko jabearekin. “Oraindik garaiz da hitz egiteko, baina salmentak asko jaitsi dira. Momentuz, gure bezero diren tabernariek ez dituzte tabako-makinak erretiratu, eta beno...”.

Igarzak kontatu duenez, “tabakoaren gaineko zerga ikaragarri igo zuen Estatuak Gabonak aurretik: %10. Ondorioz, gazte asko hasi da liatzeko tabakoa erosten, proportzioran merkeagoa da, eta sanoagoa dela ere badioke. Baina, liatzeko tabakoaren prezioari ere kristoren zartakoa eman diote”.

► Lege bat horrela obligatzearen aldekoa ez dela adierazi du Igarzak: "Nik tabernara joaten naizenean, lagun artean, kafearekin batera tabakoa erretzen dut. Zenbat jende ote dago tabernara joan, kafea, kopa eta purua hartu, eta jokuan egiten duena? Taberna zer da bada, erretzea debekatzen badute? Taberna zer da bada, umeak joateko? Ez. Tabernari bakoitzak erabaki beharko luke beren tabernan erretzea dagoen ala ez; baina horrela obligatu ez. Ez dute lana egiten uzten".

Hainbat murrizketa jaso gabe

Euskal Herriko Tabakoaren kontrako legeak, azkenean, ez ditu jasoko hasierako zirriborroan aurreikusitako hainbat murrizketa polemiko. Hala, adin-txikikoak doazen autoetan eta soziedade eta txokoetan erretzea egongo da, baita gasolindegietan tabakoa saltzea ere. Bestalde, EAJ, PP eta Aralar alderdiek hala eskatuta, Tabakoaren Kontrako Legearen zaintza Eusko Jaurlaritzako inspektoreei bakarrik dagokie EAEn, eta ez Ertzaintzari edo udaltzainei.

Legea indarrean sartu berrikan, ikuskatzelanei buruz, gauza garbirik ez zekien Jose Angel Aristi udaltzainburuak. Izan ere, aurreikuspenen arabera, EAEko Tabakoaren Kontrako Legea hil honen lehen osoko bilkuran onartuko da. "Eusko Jaurlaritzak otsailean bukatuko omen du legea garatzea. Hasieran, behintzat, ez ertzainei, ez udaltzaingoei, ez digute azaldu nola jokatu behar dugun. Egunkarian leitzen dugunarekin gaude". Kontuak kontu, erretzea debekatu dute; eta, beraz, edozein keza agertzeko Eusko Jaurlaritzaren arreta zerbitzura, 902271818 zenbakira, deitzeko adierazi du Aristik.

Udaltzaingoan, kexatuz, herritar baten deia ere jaso zutela kontatu du: "Taberna batean bezeroak ez ezik zerbitzaria bera ere erretzen ari zirela salatuz deitu zigun herritar batek. Artean, instrukzioak jarri gabe nituen, baina orain halako kasuetan zer egin, garbi dugu: halako tabernatan erretzen ari direla esanaz inork deituko baligu, joango gara, eta erretzera kanpora irteteko edo itzaltzeko esango dugu. Kaso egiten badu, ondo. Batenbat

'Gezurretazkoa'

Herriko tabernaren batean, oraindik ere, egunkaria irakurriz eta kafea hartuz inor zigarroa erretzen ikusten baduzue ez azoratu; gezurretazkoak ugaritzen ari baitira. Itziar Agirre botikariaren esanetan, "legea indarrean sartu denetik Aranburu farmaziara geroz eta jende gehiago doa, erretzea uzteko erremedio bila. Zigarro elektronikoa farmazian ez ezik, biltegietan ere agortu egin zen, Olentzerotan eta Erregetan oparitzeko askok eraman baitzuten. Ez du pisu handirik, bateria bidez kargatzen da, eta txokolate, menta, tabako eta kafe zaporeko kapsulak sartzen zaizkio, gastatu ahala. Zigarro elektronikoa 39,95 euro balio du, eta kargatzeko bost kapsulako kaxak 7,90 euro". Nikotinazko txikileak eta partxeak ere eskaintzen dituzte.

Uztarriak hitz egin duen herriko hiru belar-dendetan, ostera, erretzea uzteko produkturik edo akupuntura saiurik ez dute eskaintzen.✘



Zigarro elektronikoa, partxeak eta txikileak.

egoskor jartzen bada, erretzailearen eta taberna horretako nagusiaren datuekin Eusko Jaurlaritzara bidaliko dugu informazioa".

Kaleak egokitu behar

Taberna eta jatetxeetan erretzerik ez dagoenez, taberna atariak eta kaleak erretzaileentzat egokitzeko gaia aztertzen ari dira Udalean. Udaleko aparejadore Joxe Mari Arregiren esanetan, "kalean hautsontziak jartzearen gaia ez da oraingo eztabaida; alegia, legea indarrean jarri denetik sortutakoa. Betiko eztabaida da, eta lehenago ere komentatu izan dugu horretaz, nahiz eta orain arte ezer egin ez. Tabakoaren Kontrako Legedirik gabe, edo legediarekin, aztertu eta landu beharreko gaia da. Zigarrokinak zaborretara botatzeko garaian, edukazioa falta izan zaio jendeari. Erretzailearen lehen keinua zigarroa lurrera bota eta hankarekin zapaltzea da. Denok egin behar dugu lana honetan, bai partikularrek eta bai Udalak".

Kaleko hautsontziak merkatuan badaudela dio Arregik, baina "ez daude oso landuta. Gainera, hautsontzi horiek jaso eta garbitzeko sistema ere aztertu beharko litzateke".

Atariak erretzaileentzat egokitu asmoz, tabernariak toldoak eskatzen hasi direla kontatu du: "Orain arte, eguzkitik babesteko horietakoak eduki izan dituzte terrazetan. Baina, neguan, albotik jotzen duen haizetik eta euritik babesteko parapetoak eskatzen ari dira". Hori guztia komisioan aztertzen ari direla adierazi du aparejadoreak: "gure herriko espaloiak ez dira bereziki zabalak, eta toldoak edo parapetoak jartzeak pasoa itxiko luke ten aztertu behar da. Taberna bakoitzeko kasuak banan-banan aztertuko dira, eta egin daitekeen kasuetan horretarako baimena emango zaie". Agirreraren esanetan guztia ez da Udalean aztertu beharrekoa: "taberna gainera etxe-jabeek ere zer esana badute. Toldoa jartzea, fatxadako kontua denez, gainontzeko etxe-jabeekin adostu beharko da; eta, berdin, parapetoa jartzeraz, fatxadara lotu behar baita. Gainera, gerta daiteke tabernari batek parapetoa jarri, eta alboko saltokikoak esatea bere erakusleihoa tapatzen duela".✘

 **ostadar optika**
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **ORKATX KULTUR ELKARTEA**

Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

KIRKOS SEXOLOGIA ZENTRUA

Bikote terapia sexuala · Gurasoentzako aholkularitza ·
Eiakulazio goiztiarra · Desio falta · Inpotentzia · Baginismoa

Eliz kale 13, tarteko solairua ezkerre · ZUMARRAGA · 630 287 321
Sexologia: Edu Reguero · AEPS 421z

Kalean zer diote?

Urte berriarekin indarrean sartu den Tabakoaren Kontrako Legea egokia den galdetuta, bakarren batek begi onez ikusten badu ere, gehienek debekua ez dute begien bistan ikusi ere egin nahi.

Indarrean sartu berri den Tabakoaren Legeak hautsak harrotu ditu batean eta bestean; tuki publikoetan, tabernetan, parkeetan... ezin baita erre. Uztarrria kalera atera da, eta herritarrei zera galdetu die: Zer iritzi duzu Tabakoaren Legearen inguruan?



JUNKAL KORTA
jubilatua

“erretzaileentzat trauma garrantzitsua da”

“Urte askoan izan naiz erretzailea. Tabako beltza, Ducadosa, erre izan dut. Egunean paketea jiratzten nuen. Beti uztekoan, beti uztekoan... askotan esaten nuen neurekiko, zenbaitek bezala kafearen ondoren zigarro bat erretzeraz ondo, baina ez nintzen neure buruarekin fio; eta, duela sei bat urte, sansebastian egunez azkena erre, eta pitilleroa zaborretara bota nuen. Horrelako gauzak egoskorkerian utzita hobe. Eta, indarrean sartu berri duten tabakoaren legeari dagokionean, uste dut erretzea kolpera debekatzea baino hobe lukete erre al izateko tabernak egokitzea. Noski, erreko ez balitz askoz hobe, dudarik ez; baina, erretzaileentzat trauma garrantzitsua da”.



HARITZ SEGUROLA
langilea

“tabernetan giroa askoz ere garbiagoa da orain”

“Sei urte dira erretzea utzi nuela. Lehenengo parranda ailegatu arte, nahikoa ondo agoantatu nuen, baina sansebastianak ziren eta erre gabe egon ezin. Urte berriarako egindako promesa zen, eta lortu nuen lagatzea. Legea ondo iruditzen zait, tabernetako giroa garbiagoa da orain, eta arropetan ere ez dugu tabako usain txarra eramaten etxera”.



MIREN ARRUTI
ikaslea

“asko estimatzen dut erre ezin izana”

“Ez dut erretzen, eta askotan traogoia hartzen tabernan bakarrik

geratzen naiz, koadrilako denak erretzera kanpora irteten baitira. Orain, hala ere, hasi dira erreleboak egiten, ni bakarrik ez uzteko. Asteburuetan Oñatz tabernan egiten dut lana, eta asko estimatzen dut erre ezin izana. Giroa garbiagoa da. Egia da tabernetan jende gutxiago dabilela. Zapatu gauetan taberna kanpoan jende gehiago dago barruan baino”.



JOSE ORBEGOZO
jubilatua

“barrabiletan ostikoz jotzea bezala da, Legea”

“Egunean hiru pakete Winston erretzera ailegatu nintzen. Gero, hamalau urtean batere erre gabe egon naiz. Erraz utzi nuen. laz, ordea, ehizean hasi, eta hotzarekin puruak erretzen hasi nintzen. Egunean pare bat erretzen ditut; baina, berriz ere erraz utziko nuke. Berdin zait erretzea debekatzea; nik erraz agoantatuko dut erre gabe. Baina, tabernarientzat kristoren galera da, jendea lokaletara, soziedadeetara joaten hasi baita. Kea txarra dela diote, eta Bastidak eta Martxielenek botatzen dutena ez al da txarra? Lege hau barrabiletan ostikoz jotzea bezala da tabernarientzat”.



IGOR ALBERDI
langilea

“Legeak alde onak eta txarrak ditu”

“Legeak alde onak eta txarrak ditu. Legea inposatu egin digute, eta erretzaileok ez dugu kulparik yonkien moduan kanpoan erretzen egoteko. Tabernari bakoitzari aukera eman beharko litzaioke, erretzea debekatu ala ez. Bestela, guztion eskubideak betetzeko, tabernak erretzaileentzat egokitze laguntzak eman beharko litzukete. Nik umea ere badut, eta harekin tabernara joateko, orain giroa askoz ere garbiagoa da. Noski, egia da, umeentzako leku aproposa, berez, parkea dela”.



SAIOA GARMENDIA
langilea

“Aukera eman beharko litzaikeke tabernarie”

“Egunean hamabost bat zigarro erretzen nituen, baina duela bi hilabete utzi egin nuen. Ez, ordea, lege berri honengatik; bestela. Legea ondo iruditzen zait, baina erretzaileentzat putakeria da. Nolanahi ere, tabernariei erabakitze-ko aukera eman beharko litzaiakela uste dut”.

Uzteko gogorik ez

Osaba-ilobek Euskal Herriko Rallysprintak korritzen dituzte. Azken denboraldian, bigarren postua lortu dute, Vilariñoren atzetik. 📝📷 Xabier Otamendi

Autoan sartu eta erregularrak izatea". Hori da Joxe Labaka *Xague* (Azpeitia, 1960) gidariaren eta Aitor Otaegi *Pai* (Azpeitia, 1982) koploduaren eginbehar nagusia Rallysprintetako karreretan. Horri esker lortu dutela uste dute biek Euskal Herriko Rallysprint txapelketan bigarren postua, Villarínoren atzetik. Beraien kategorian, berriaz, aurreneko postua lortu zuten.

Halako emaitzarik ez zutela "espero" dio Labakak, eta lortutakoarekin "oso gustura" daude. "Zeuden autoak eta gidariak ikusita, ez genuen horrelakorik egitea espero. Horrez gain Gipuzkoako Rally eta Rallysprint txapelketan 3. postua eskuratu zuten. Pilotuaren esanetan, "Rallyetan ez dugu parte hartzen, baina, iaz Gipuzkoako mailan bateratu egin zituzten, eta egin zen Rally bakarrean parte hartzea erabaki genuen".

"Autoarekin ez dugu arazo handiegirik izan azken denboraldian, eta alde horretatik zortea izan dugu", dio pilotuak. Arriskatu gabe ere ez dira ibiltzen, baina beti denbora ona egiten saiatzen dira. Rallysprint bakoitzean hiru aldiz korritzen da pista bakoitza. "Hiru bueltak antzeko denboran egiten ditugu; normalean segundo baten gora beheran egiten ditugu guztiak", jakinarazi du Otaegik. "Erregularrak izaten" saiatzen dira lasterketa guztietan, luze bakoitzean "antzeko denbora" egiten. Koploduak dioenez, "makal ez gara joaten, erritmo on bat hartu eta segi... erregu-



Aitor Otaegi *Pai* eta Joxe Labaka *Xague*.

lar, baina bixi". Horregatik, beti lortzen dituzte puntuak, eta beste batzuk batzuetan azkarra- go ibiliko diren arren, ez dute amaitzen, eta beraz, ez dute lortzen punturik.

Osaba eta iloba dira; hala ere, familiakoa baino, elkarrekin lagun arteko harremana dutela diote. Hiru denboraldi daramatza ilobak osabaren alboan karreran egin beharrekoaren berri ematen. Aurten laugarrena izango du. Labakak autoan askoz gehiago daramatza; izan ere, 32 urte dira lehen aldiz Rallysprintean parte hartu zuela. Orduetik ez du hutsik egin eta urtero parte hartu du txapelketan. "Beti izan ditut lagunak autoarekin eta karrerarekin lagundu didatenak. Batzuk utzi du-

tenean gazteagoak ere aurkitu izan ditut. Zorte handia izan dut. Horrelako laguntzarik gabe aspaldi utzita izango nuen". Noiz arte jarraituko duen galdetuta, ilobak "oraindik ez behintzat" erantzun du; eta osabak, "aurten behintzat irtengo dugu. Urtero horixe esaten dut baina, kar kar... Uzteko ideia hor dago, baina batere gogorik ez daukat".

Urrakiko karrera hura

Lasterketarik onena zein den galdetuta, "guztiak onak" direla esan dute, baina, Otaegik Hondarribikoa aitatu du. "Ederra da, zaila delako. Bide estuak ditu, oraintxe lurra, oraintxe zementua... Bidetik irtetea oso erraza da". Pilotuak dioenez bide horretan "kontzentrazio handia" behar da. Hortaz aparte, albo-koari "arretaz entzun eta kasu egin" behar zaio. Nahiz eta Otaegik aitortzen duen "noiz edo noiz galdu" dela oharrak irakurtzerakoan. Orduan, "lasai hartu eta non goazen bilatzen saiatzen naiz". Joxek lehen egiten zen Urrakikoa ere gogoratu du: "ederra zen, baina, aspaldi kendu zuten". Ikasberriko Rallysprinta ere gustuko dutela diote biek.

Horrelakorik ez gertatzeko garrantzitsua da oharrak ongi hartzea. Horretarako, lasterketa baino astebete lehenago ibilbidea ikusteko aukera ematen dute antolatzaileek. Auto arruntarekin egin behar da bira, abiadura errespetatuta. "Lau bat aldiz uzten dute itzulia egiten, eta oharrak ongi hartzeko aprobe-



Aitor Otaegi *Pai*-kopilotoa- eta Joxe Labaka *Xague*-pilotoa- osaba-ilobak Rallysprinta korritzen. ||| **Joxe Labakak** utzita

txatu behar da”, dio Labakak. “Hala ere, aur-reko urteetakoak baldin badaukazu, erre-pasatu bakarrik egin behar izaten da”.

Kanpoan nahiago

Etxean jokatzea ederra den arren, ez dela kanpoan jokatzea bezala iritziz dio Labakak. “Herrian desberdina da, ezagun asko, ko-mentarioak... Berez, berdin dio, baina auke-ran kanpoan nahiago izaten dut”.

Eli Bergara, Xagueren emaztea, ere auto-zalea dela gogoratu du Otaegik. “Urtero

Rallysprint batean emaztearekin korritzen du, normalean Errezilgoan”. Kopilotu jartzen da gizonari egin behar dituen maniobrak espli-katzeko. “Ongi moldatzen da. Gainera, gus-tura ibiltzen da, ikaragarri gustatzen baitzaio. Nik orduan postua aldatzen dut, buzoa jantzi eta mekaniko lanak egiten hasten bainaiz. Egia esan, beste tentsio bat pasatzen da, ongi joango al diren galdezka neure buruari”, kontatu du Otaegik.

Gauetan Aiertza autoak-en biltzen dira ka-rarrerarako prestaketak egiteko. “Batzuetan

astean bitan biltzen gara, baina lana dagoe-nean baita egunero ere”, dio gazteenak. Pilo-tu eta kopilotuez gain, beste lau lagun inguru ere biltzen dira elkarren artean autoari egin beharrekoak egiteko. Konponketak egiten ordu eta erdi inguru egin, eta etxera alde egin aurretik soziedadera joaten dira trago bat hartzera. “Etxean telebista ikusten egon be-harreen hortxe egoten gara”.

Aiertza autoak, Bi-Aitz karrozeria, Letea ja-tetxea eta Jim Clark kafetegia gogoratu dituz-te, ematen dieten laguntzagarrik.*

arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPETAIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62

LUBA

aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOALKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba_ase@euskalnet.net

Koh Tao

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPETAIA (Gipuzkoa)



ESKOLAN HEZI, HERRIAN BIZI



IRAURGI

ikastetxea



0 urte

hartzaindegia

1 eta 2 urte

Bi eskaintza:
- hartzaindegia
- gela arrunta
(goizez
arratsaldez
goizez eta arratsaldez)

3, 4 eta 5 urte

Bi eskaintza:
- gela arrunta
- gela + hartzaindegia
(hartzokoa)

gela arrunta: 09:00-12:15 / 15:00 - 17:00

hartzaindegia: 07:30 - 19:00 (iraila, gabonak, aste santua eta uztaila barne)

IRAURGI IKASTETXEA
GABON JAIALDIA 2010-11



0-18 urte arteko hezkuntza eskaintza zabala

ZERBITZUAK

- 1) AUTOBUSA
- Herri barrukoa
- Ingurukoa
- 2) JANGELA
- Gure sukaldean
prestatutako janaria
- 3) RETENA
- 4) ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK



informa zaitez 943 81 02 10 (DBH) eta 943 81 63 80 (HH)

haritz etxeberria 'ministro'

josu oiartzabal 'xenpelar'



Erre dezagun tabakoaren legea

Xenpelar. Azkenengo bertso afarian larri ibili gintuan, Tabakoaren Legea dela eta.

Ministro. Bai motel. Nahiago diat jatetxe onena baino erre daiteken edozein txoko.

Xenpelar. Momentu batzutan jende gehiago geundean kanpoan barruan baino!

Ministro. Hotza egiten zuelako, bestela saioa kanpoan egingo genian.

Xenpelar. Harrigarria duk gehiengo bat erakusten ari garen sumisita.

Ministro. Bai, ni ere harrituta nagok. Parandako ordu txikietan jendea errebelatzen duk, baina bestela tabernariak ere ez ziaten espero jokabide hau.

Xenpelar. Askori entzun zieat esaten bazkal ondorengo kafearekin zigarroa ez erretzekotan, etxean hartuko dutela kafea.

Ministro. Izorratu egiten dik. Gainera, gehiago taberna osoa kanpoan badago. Oso kurioa duk erretzaileak ez diren asko ere, kanpora irteten dituk, barruan bakarrik daudela eta gurekin egon nahi dutelako. Ez al duk izango orain arte gure kontura hartu duten ke dosiaren bila datozela?

Xenpelar. Niri gehiena gustatu zaidana duk kanpora irtetean, beste erretzaileekin harremana egitea errazagoa dela. Askotan, taberna berdinean ibiliagatik, elkarrekin diagan hoztasuna hausten duk, eta badakik behin hori gaindituta, ohean ere bukatu dezakek.

Beharko espabilatu

Ministro. Betiko txaposo eta latosoa etortzen bazaik ere aitzakia ederra duk erretzera irten behar duhala esatea. Hori bai haizea hartzera bidali beharrean, heuk irten behar duk haizea hartzera.

||| **MINISTRO.** “Txoko batean egin beharko dizkiagu bertso eskolako afariak”

||| **XENPELAR.** “Nahiago diat platerak garbitzea, gero lasai erretzekotan”

Xenpelar. Tabernako keak molestaturiko dik, baina martxielenen keak ez al dik gehiago molestaturiko?

Ministro. Kontua duk Estatuak hori nahi duela. Gu keari buruz ari garen bitartean, berriak gure eskubide guztiak erretzen ari dituk.

Xenpelar. Espabilatu beharko diagu; bestela, martxa honetan ez jubilaziorik, ez eskubiderik, ezta bakearen pipa erretzerik ere.


Ministro. Beno, hemendik aurrera bertso eskolako afariak txoko edo elkarte batean egin beharko dizkiagu ez?

Xenpelar. Dударik gabe. Nik nahiago diat afaria prestatu eta platerak garbitzea, gero lasai erretzekotan.

Ministro. Orduan tratua firmatuta zagok!*



Irrien lagunak herrian

Kilometroak 2011ren aldeko ekitaldien baitan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek 'Ongi etorri Pupu eta Lore' emanaldia eskainiko dute hilaren 19an, Izarraitz pilotalekuan.  Ainitze Agirrezabala

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen familia handituz doa. Hirukotea Pupu eta Lore umetxoekin etorriko da hil honen 19an, Azpeitira egingo duten bisitan.

Urtero egin ohi den ikastolen aldeko festa aurtengoan Azpeitiko herriak hartuko du. Hala, Azpeitiko Ikastola Ikasberrik iazko urrian Pasaian lekukoa hartu orduko ekitaldiak antolatzeari ekin zion, buru-belarri. *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna, hain zuzen, kilometroak 2011ren alde antolatzen ari diren ekitaldietako bat da.

Sarrerak salgai

Pailazoen ikuskizuna baino bi aste lehenago jarriko dituzte sarrerak salgai, sei euroren truke. Pertsonako sarrera bat erosi beharko da, eta segurtasun neurriak

DATUAK

||| **Zer.** 'Ongi etorri Pupu eta Lore' ikuskizuna. ||| **Eguna.** Otsailak 19 (larunbata).

||| **Ordua.** 16:00etan eta 18:30ean ||| **Tokia.** Izarraitz pilotalekua.

||| **Antolatzailea.** Uztaro haurreskola eta Ikasberri.

medio, Izarraitz pilotalekuan ikusle kopurua mugatua izango da. Sarrerak ondorengo taberna eta saltokietan erosi ahalko dira: Azpeitian Kilometroak 2011ko dendan, Udal Kiroldegiko tabernan, Uztaro haurreskolan, Lasa gozotegian, eta Pastorkua, Ametsa eta Eguzkitza tabernetan; Errezilgo dendan; Azkoitian Yalai gzooteagian, eta Zestoan Mairi estan-koan.*

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

6 euro. Sarrerak bi aste lehenago jarriko dituzte salgai, eta pertsonako sarrera bat erosi beharko da.

2 sarrera mota. Bi saio izango dira, 16:00etan eta 18:30ean, eta bi emanaldietako sarrerak kolore desberdina izango dute.*



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak emanaldia eskaintzen. ||| **Tolosaldeko Hitza**

BESTERIK

1 Santa Agedak Matxinbentan

Otsailaren 4an, auzoko gazteak santa eskean aterako dira.

Hilaren 5ean, berriz, bertso afaria izango da Iker zubeldia eta Julio Sotorekin. Igandean, goizean pilota partidak eta artisau azoka izango dira; eta arratsaldean herri kirolak.

||| **Eguna.** Otsailak 4, 5 eta 6 (ostirala, larunbata eta igandea).

||| **Tokia.** Matxinbenta auzoa.

||| **Antolatzailea.**

Matxinbentako Festa Batzordea.

2 Txotx Independentista

Menua ondorengoa da:

urdaiazpiko tortila, haragi gisatua, postrea eta kafea. Langabetu eta ikasleek 12 euro ordaindu beharko dute, eta langileek 18 euro. Txartelak Orkatzen daude salgai.

||| **Eguna.** Otsailak 12 (larunbata). ||| **Ordua.** 20:00

||| **Tokia.** Berdura-plaza.

||| **Antolatzailea.** Zezen Beltz Elkarte.

3 Sokamuturra hizpide, DVD-a

Azpeitiko sokamuturrari buruzko dokumental bat egin du Enekoitz Esnaola kazetariak. Tradizio horren berri eman, eta atzean zer lan dagoen kontatuko du.

||| **Eguna.** Otsailak 26 (larunbata). ||| **Ordua.** 18:30

||| **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. ||| **Antolatzailea.** Zezen Beltz Elkarte.*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



euskara eta komunikazioa

Diseinua:

- Erakundeen irudi korporatiboa: logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Errotuluak eta seinaleztapena
- Web orrien diseinu eta programazioa
- Iragarkiak

HITZ GEZIDUNAK



Egilea:
Luma

	Itsas ugaztunak	Deitura	Junta-gailua	Pl. arrain mota	Xaxatzen, kitzikatzen
	Sorospenak	Goratua	Bibliako pertsonaia	Kontsonantea	
	Hegazti berritsua			Modu atzikia	
	Lohiak, zikinak			Interjekzioa	
Ibarrak	Emakume izena			Bi zati bi	
Erabili	Poesia mota			Su	
			Egunaren atal		
			Zeunden		
Izena				51	
Hori argi				Izanikoa	
		Behartsuak			
		500			
Noka, nintzen				Joan hadi!	
Jantzi mota				Hizki grekoa	
		Begien bistan			
		1			
Militarren kolore			Zakoteak		●

* Fisikari azpeitiarra

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudietan ageri diren 8 edari bizi edo alkoholdunen izen arruntak



W	I	S	K	O	R	G	K	V	E	O	L
L	H	A	R	E	H	B	A	N	O	A	O
S	I	K	O	Ñ	A	K	A	N	S	D	U
U	D	V	O	D	I	A	R	I	P	S	K
N	L	O	S	K	R	U	N	A	E	I	D
A	O	H	A	B	I	A	I	G	E	H	T
D	W	M	E	T	Z	A	G	O	Ñ	W	I
A	H	N	S	V	E	Z	K	A	H	I	R
N	I	Z	E	U	O	B	R	O	R	T	I
G	S	I	Ñ	A	O	D	R	A	G	A	S
O	K	H	A	M	O	D	K	E	S	W	G
S	I	A	R	A	K	I	Ñ	A	K	I	P
B	A	O	S	U	I	V	R	O	S	M	I
I	K	L	O	T	X	O	M	D	N	K	O

Hormonak

Hormonak gure organismoko glandula ezberdinek jariatzen dituzten substantziak dira, eta giza soinaren funtzionamendua erregulatzeko balio dute. Hala behar izanez gero, laborategietan ere prestatu daitezke sintesi kimikoz.

Beharbada, garrantzia gehiena dutenak ondo-rengo organo hauek jariatzen dituztenak dira: hipofisia, pankreak, tiroidea, paratiroidea, obulategia eta testikuluak. Funtzio espezifikoak, zehatzak dituzte, noski. Era batera edo bestera lortzen ditugun hormonen bitartez eratzen dira tratamenduak, eta horri hormonoterapia deitzen diogu. Adibidez, une honetan pertsona asko dira hormona tiroidea hartzen dutenak, noduloak dituztelako, eta beren tiroideen glandula, osorik edo zati bat, kendu zaielako.

Entzuna dugu, zenbait gaitzen aurka borrokatzeko kortikoideak erabili direla, edo testosterona kirolarien muskuluak garatzeko, edo estrogenoak menopausiare kasuetan. Zuhurtasunez, eta beti ere profesional batek kontrolatuz erabili behar dira.

Giza gorputzak dena hartzen du kontutan, eta badaude hormonak erreakzio alergikoetan ekimena garatzen dutenak. Sexu jatorrikoak markatzen dute, eme eta arren adierazpen psikikoak eta fisikoak, eta beharrezkoak dira ugalketarako.*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

ANDER GOGORZA informatikoa



1. Birusik txarrena?

Detektatzen ez dena.

2. Hackerra bazina...

Nasaren webgunea jarriko nuke hankaz gora.

3. Internetak failatzean...

Geroz eta menpekotasun handiagoa dugu.

4. Konpondu duzuen aberiarik potoloena?

Enpresa bateko zerbitzaria erori, eta 14 lagun lanik egin ezinda egon ziren.

5. Bezeroen PC-etan kuxkuxeatzen duzue?

Konfidentziatasun kontratua sinatua dugu langileok.

6. Informatikoa ez bazina...

Tabernako zerbitzaria.

7. Ordenagailuari galdu al diogu beldurra?

Gazteek beldurrik ez diote. Ordenagailua izorratzeko jakin egin behar da.*

📧 **Ainitze Agirrezabala**

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

IOSU OPTIKA
Erdi kalea, beheka z/g.
Tel. / Faxes: 943 15 12 91

lentzeria mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

domusa

lora-etxea...

Kimubat 
ASTE BUKAERAN IREKIA
Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Saibe Auzunea, 35 beheka 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

PEUGEOT 
AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxes: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

|||BLOGAK|||||

Ruper eta Martin Larralde

Joan den urtarrilaren 8an 300 bat pribilegiatuk Ruper Ordorikaren kontzertua entzuteko plazerra izan genuen Sanagustinen (...).

Kanta eder asko jo zituen eta horietako bati aipamen bat egin nahi nioke (...). Martin Larralde abestiaz ari naiz.

Martin Larralde Bordaxuri Hazparnen jaio zen 1782an (...). Ama hil zenean, Martinek baserriaren zati bat eskatu zion bere aitari, eta liskar eta eztabaida batzuen ondoren bien arteko harremana asko gaiztotu zen. Handik denbora batera, aita tiro bat jaso zuen larrean lanean zebilela. Jendarmeeek Martin semea atxilotu eta aitaren hilketa eragotzita, Rocheforteko kartzelan sartu ondoren, bertan hil zen sei urte geroago.

Erruduna ala errugabea zen Martin Larralde? Ez dago oso argi. Bereziki kartzelan eman zituen sei urte horietan idatzi zituen

|||Kanta eder asko jo zituen eta horietako bati aipamen bat egin nahi nioke

|||INKESTA|||

Erosketak herrian ala kanpoan?

Herrian. %39,39.

Kanpoan. %36,36.

Inon ere ez. %23,23.

|||Oraingo galdera. Helduen danborradako aldaketak egokiak al dira?

bertsoak irakurtzen baditugu (...). Hemen ezagunenetako bat, *Mila zortziehun hamaborzgarrena:*

Ene aita da gizon kontsideratua, Semea galeretan du segurtatua Nonahi otoitzean belaunikatu-Saindu iduri deabru madarikatua ...

Hok eman izan ditut ez xangrinatzeko

Ahaidek, adixkidek, kuraie hartzeko

Eta partikulazki, aita, zuretako, Kantuok aditzean, semeaz oroitzeko

(...) Joseba Sarrionandia poeta bizkaitarrak idatzi zuen gaur Ruperrek kantatzen duen abesti ederra:

"Martin Larralde honelako egun batez hil zen galeretan, begiak zabalik etzanda, agian zerua itsaso zikin bat dela esanez".*

|||||||iñigo ibarguren|||

|||EFEMERIDEAK|||||

1539

Anaia hil zela ezjakinean.

Erromatik bere anaia Martin Garziari eskutitza idatzi zion Loiolako Inazio. Alabaina, artean, anaia Martin aurreko urteko azaroan hil zela jakin gabe zegoen Loiolako Inazio.

1807

Tabernetan egiten ziren gehiegikeriekin bukatzeko.

Tabernetako leihoetan orri batzuk jartzea erabaki zuten herriko agintariek, hurbiltzen zirenek jakiteko nolako prezioak zituzten. Goizetik ilunabarrera egon beharko zuten orriek ikusgai, bestela lehen aldian jabeari bi pesoko isuna ezarriko zioten.

🍷 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar* liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkestak |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



Gairik jarri gabe

Saltzaile, kirol esatari, ‘soziedadeko mendizale’ eta talasoterapiara zaletu berria. Hori ere bada

Xebastian Lizaso. ✉ 📍 Mailo Oiarzabal

B

otzak bertsoa, Lizaso!”

Horrelakoak entzutea askotan tokatu zaion arren, pertsonaia ezaguna izatearen ajeeek gehiegi ez dute larritu izan orainartean Xebastian Lizaso (Azpeitia, 1958).

“San Sebastian kalean prozesioan zebilela” Landetan jaio zen “tabernako mutil koskor lotsagabea” 16 urte zituenetik dabil plazaz plaza bertsoan, baina bertsolaritza inoiz ez du izan lanbide. “Lanbidez, saltzailea”, dio berak. Kotxeak eta haiantzako aseguruak saltzen hasi zen, *Egunkaria*-n aurrena eta *Berria*-n gero publizitatea saltzea tokatu zitzaion, eta gaur egun adinduentzat egokitu-tako altzariak saltzen ditu. “Saltzea beti izan da zaila, eta gaur egun miraria ere bai, ia-ia –onartzen du–. Lan gogorra da, baina baita polita ere; jende piloia ezagutzen duzu. Eta, askotan, gaur atea ixten dizuna, gero bera etortzen zaizu bila”. Bere kasuan, “ezaguna izateak” atek irekitzen laguntzen diola aitortzen du: “Gehiago laguntzen dio bertsolariak saltzaileari, saltzaileak bertsolariari baino”.

Txirindularitza zuzenean jarraitzen dutenentzat ere ezaguna da Xebastian Lizasoren ahotsa. Hogeitaka urte dramatzatza Euskal Herriko Itzulian eta Donostiako Klasikoan

esatari lanak egiten, euskaraz. Bera izan zen aurrena, eta lasterketa horien antolatzaileei euskara ere erabiltzea proposatu ziena. Hasieran, leku guztietan ez zioten “harrera onik” egin euskarazko jardunari, “baina orain normal-normal” hartzen dute guztiek.

Lanbideagatik eta bertsolari jardunagatik, kotxean hara eta hona asko ibiltzea tokatzen zaio Lizasori. Iaz 62.500 kilometro egin zizkion autoari. “Zenbait taxilarik hartuko lituzke!”. Bertso-saio baterako kotxe bakarrean bizpahiru lagun elkartu behar badira, azpeitiarrak nahiago txofertzea. “Ez dakit txofer onena naizen, edo besteekin gutxiena fidatzen dena. Besteak nirekin gehiago fidatzen dira behintzat, ni haiekin baino”, azaltzen du.

Hortzak poliki eta oinak bizkor

Lasaitzeko edota pentsatzeko beharra somatzen duenean ere kotxea da Xebastian Lizasoren gustuko tokietako bat. “Ni kotxean asko erlaxatzen naiz; musika jarri baxu-baxu, eta... Ahal bada, horrelakoetan, letrarik gabeko musika”. Juan Carlos Irizarren azken lana entzuten du azkenaldian, “oso polita da”. Lasaituta uzten duen bestea talasoterapia da. Joan den udan probatu zuen aurrenekoz eta



“biziitzen ari” dela esaten du. Eta “lauean hobeto” moldatzen den arren, mendiak ere tira egiten dio Landetako bertsolariari. Orain dela hamarren bat urte Taillon eta Aneto egin zituen, hiru mila metrotik gorakoak biak. “mendizalea bai, baina mendigoizalea ez” dela dioen arren. Lagun mendizaleekin asteazkenero elkartzen da afaltzeko, “eta egundoko ibilaldi politik egiten ditugu... baina soziedadean, aulkitik mugitu gabe”.

Soziedadeko giroa asko gustatzen zaio Lizasori, baina jan-edanari oro har “lehen baino gehiago” begiratzen diola aitortzen du. 120 kilo pisatzera iritsi zen, eta orain “juxtu samar, baina bi zifratan” mantentzen da. “Hortzak gutxi ibili eta hankak asko. Hor beste sekreturik ez dago”, dio konbentzitu.✱



Xebastian Lizaso, Trenaren Museoaren kanpoan dagoen herriko turismo planoaren aurrean.

1



1. Xebastian Lizaso mendian, antoxinetik edaten. **2.** Juan Ignazio Iraola aitonaarekin. **3.** Donostian, aita Joxeri eginiko omenaldi batean, kantuan.

2



3



 horzkari
hortz osasun klinika



Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehenengo hortz klinika

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

'zure irribarra zaintzen dugu'

www.grupohorzkari.com

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Otsailaren 26an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07

Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua

943 08 06 88

FARMAZIAK (OTSAILA)

EGUNEZ

1-18-22-25	2-14-19-20-23	3-15-24	4-7-8-9-10-11-12-13-16-28	5-6-17-21-26-27
Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 815974	943 811274	943 080258	943 811350	943 811949

GAUEZ

7-8-9-24-25-26-27	10-11-12-13-21-22-23	1-2-14-19-20	3-15-16-28	4-17	5-6-18
Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisolsola (Azkoitia).
943 815974	943 811350	943 851966	943 850660	943 852989	943 851235

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALTZAINGOIA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ ITXURA BERRITUA.

Udal liburutegian helduen ikasgela goiko solairuko aretoan izango da; aldaketa nagusia hori da. Hala, ikasteko baldintza hobek izateaz gain, liburutegiak zuen leku faltari irtenbidea eman diote.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

MARIKARMEN ARREGI

Varela gozoki postuko jabea

“30 urtean pare bat aldiz bakarrik itxi dugu postua”

Umetan bezero zituztenak, gerora guraso izan, eta euren seme-alabekin joaten zaizkie gozoak erostera. 📌 **Ainitze Agirrezabala**

Noiztik duzue plazan gozoki denda?

30 urte dira. Garai batean, bi postu zeuden, Joxelitorea eta Aizpurutarrena, eta azken horiek norabait joan behar zutenean nire semea, Jose Ramon, uzten zuten gozotegiaren karguan. Gero, haiek negozioa utzi behar zutela eta, geuk hartu genuen.

Urte asko, beraz, hemengo haizea agontan...

Ohitu egin gara. Katarrorik eta ez dugu harapatzen. Berogailu txiki bat badugu, baina berotasuna hor zehar galtzen da. Gainera, azoka plaza oso egoera txarrean dago, eta konpontzen ez dutenez, itoginagatik baldeak jarri behar izaten ditugu.

Oporrik ere apenas egiten duzuen...

30 urtean pare bat aldiz bakarrik itxi dugu; gizona hil zitzaidanean, eta elurra egitean, postu guztia bustitzen baitzaigu. Egunero, goizean 9etarako ireki, eta arratsaldean 19:30ak aldera arte ez dugu itxi ere egiten.

Umetan zuen bezero zirenak, gero guraso izatean beren umeeekin etortzea ere tokatuko zitzaizuen, bada?

Gure semearen lagun denak beren seme-alabekin etortzen zaizkigu gozokiak erostera. Semeak ez ditu denak ezagutzen, baina esaten diot: ‘hau halakoren semea duk!’

Gozokiak, jostailuak... urte guzti hauetan asko aldatu al dira?

Asko lehengoak dira: pistolak, tronpetak, botoiari zapaldu eta barrutik txotxongiloa ateratzen zaion argazki makina... Bat baino gehiagok esan izan digu: ‘Oraindik ere bizi al dira horrelako diru-zorroak?’

Lapurretarik egin al dizuete inoiz?

Bai, pare bat alditan. Lehen, tabakoa ere saltzen genuen, eta gau batean atea indarrez ireki eta Winston tabako paketeak lapurtu zizkiguten. Beste behin, postuaren ezker aldeko horma –txapazkoa da– okertu, eta gozoki mordo eta musika entzuteko aparatua lapurtu zizkiguten.

Plazako postuaz gain, Sanjuandegiko ‘Azeitunero’ ere hartu duzue, ezta?

Bai. Azeituneroko gizona hil berria da, eta haren emaztea jubilatu denez, probatze aldera alokairuan hartu genuen, Gabonak aurretik. Alaba, semea eta hirurok aritzen gara.*



1

1. 2. Marikarmen Arregi, herriko plazan duen Varela gozoki denda. 3. Marikarmen seme Jose Ramon, itoginagatik baldeak jarrita.



2



3

‘Macaguako tigrea’

B

oluntarioak ziren. Omen. Kubako gerran ari ziren, 1855etik atzera. Boluntarioak, izenez, 60.000 laguneko milizia armatua zen, uharteko zoko bazter guztietara zabaldu ziren taldeak. Espainiar jatorrikoak, muturrekoak, kriolloen kontrako amorratuak, berdin erasotzen zieten antzokiei, kafe etxeei zein erreformista jendearen etxeei. Su eta herio ziren delako boluntarioak.

Eta boluntarioen artean nabarmen, Frantziako Petrirena, Macaguako tigrea gaitzizenekoa, eta haren taldea, txapelgorriak, izen hori zuen-eta Lesakako Petrirenaren gerlari multzoak.

Delako nafarrak askotariko denda zeukan La Macagua herrian, Las Villas-en. Tigreak hogeitau euskaldun zituen bere mende. Batean, nekazari behartsuak hartuko zituen preso. Bestean, lurjabe aberatsak, errebeldeen alde –hau da, Espainiako interesen kontra–, jardun zutelako susmopean. Atxilotu, eta ez si eta ez no fusilatuko zituen batzuk eta besteak Tigreak eta bere boluntario koadrilak. Biziak zangopilatu eta ahal zuten guztia harapatuko zuten: kubatar abeltzainaren buruak konfiskatu, eta iskiluak eta munizioa erosteko salduko zituzten. Aitzakia ederra zuten: azukre ingenioak –‘fabrikak’–, babes-tea zen haien lana. Omen. Ingenioak, euskaldunen eta katalanen esku zeuden gehienak. Kontatzen da, askoren artean, Petrirenak bere burua eskaini ziola ingenio bateko nagusiari, administratzaile lanak egingo zizkiola esanez. Besteak, jakina, ameto eman behar izan zion, tripako min, botagura eta ondoez handiak gorabehera.

‘Biba Espainia!’

Kultutzat zeuzkaten beren buruak, dantzaldiak antolatzen zituzten eta familia ezagunak gonbidatzen. “Ikustekoa zen gizonkote hanka-handia saltoka eta lasterka, izerditan pats eta ardo, ginebra eta larru bustiaren usain peste harekin! Eta akabo halako nes-



|||||||miel a. elustondo|||

||| Espainiak Kuban zuen gobernu txorimaloak esker ona baino ez zuen Petrirena eta txapelgorrientzat

kak, edo halako andreak, dantza ukatzen bazien –hankako behatzak osorik gorde nahi haiek–, berehala hasiko ziren-eta ‘Biba Espainia!’ eta ‘Biba Covadongako amabirjina!’ buila eta hoska, aterako zituzten ezpata eta pistolak eta lasterka hasiko ziren berriz”.

Akzioak akzio, Espainiak Kuban zuen gobernu txorimaloak esker ona baino ez zuen Petrirena eta haren txapelgorrientzat. Esaterako, 1872an, Boluntarioen Komandante izendatu zuen lesakarra. Merezimenduen artean, 79 errebelde garbitu izana... Hiru urtean zirti-zarta jendea akabatzen ibili ondoren, 40.000 peso bidali omen zituen nora edo nora Espainiara.

Heriotzako orduan ere gogor Petrirena, Macaguako tigrea. Damu zen, damu, bera bezain lesakar eta euskaldun zen Juan Domenzain ez zuelako akabatu.

Tribunal militarren lan errepresiboa eta boluntario odolzaleen

abusu eta gehiegikeriak galarazi zuten, neurri handian, kubatarren eta espainiarren arteko bakea.

Arrisku galanta gurean gaur egun.*



MATRIKULAZIOA

urtarrilak 31tik otsailak 11ra

IRAKASKUNTZA
0 URTEK 20 URTERA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH,
Batxilergoak eta Heziketa Zikloak

PAUSÖZ
PAUSO
ETORKIZUNA
ERAIKITZEN



AZPEITIKO IKASTOLA - KARMELO ETXEGARAI

Euskal Herria, 50 - Tfnoa.: 943 81 26 97- e-maila: 012320aa@hezkuntza.net
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza



ZAINZA ZERBITZUA

BI JANGELA

- Lehen Hezkuntzakoentzat
- Haur Hezkuntzakoentzat (logela eta guzti)

GARRAIOA

- Autobus bakoitza bere zainzailearekin



UROLA IKASTOLA AZKOTIA - AZPEITIA BIH

UROLA IKASTOLA

Perdillegi, 3 - Tfnoa.: 943 15 02 28 - azpeitia@uroala.org - www.uroala.org
DBH, Batxilergoak eta Heziketa Zikloak



DBH

BATXILERGOAK

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Arotzeria eta altzarigintza
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Adminisrazioa eta finantzak



*DBHOn



eurotex

P I N T U R A K



BURDINDEGIA



ELEKTRIZITATEA



BIKOLAJEA



SEGURTASUN BABESA



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 8125 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com

www.eurotex.es





innovadental



innovadental



Bisita gaitzazu:
José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:
943 02 59 55

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTEtik gora
Eskatu presupuestoa eta kontsultatu gure finantzaketa!

hartz-klinika
AZPEITIAⁿ

Ukabi
informatika

TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 behea
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobek
zure aurrezkiak salbu
dira gurean



HP PROBOOK 4520S

- CORE I3-350 / 2.26 GHZ
- RAM Memoria 4GB
- Disko gogorra: HD 320 GB
- Windows 7 Home Premium. HDMI
- Pantaila: TFT 15.6" LED

599 euro
b.e.z. barne